

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Barkos Lehendakariak zuzendu du 2017ko Kirol Merezimenduaren 32 sari banatzeko ekitaldia

Ekitaldian, urrezko domina jaso duten Martínez de Irujo eta Abel Barriola pilotari ohien balioak ez ezik, zilarrezko dominak eta ohorezko aipamenak merezi dituzten pertsonen eta erakundeen konpromisoa ere nabarmendu ditu

Ostirala, 2017.eko abenduak 1

Nafarroako Lehendakaria den Uxue Barkosek zuzendu du Nafarroako Gobernuak 2017ko Kirol Merezimendurako 32 sari emateko ekitaldia. Gainera, ekitaldian, azpimarratu ditu saritutako pertsonen eta erakundeen "konpromisoa eta inplikazioa" nahiz gizarteari oro har eskaintzen dioten eredua.



32 saridunak agintariekin batera.

Kasu honetan, Exekutiboak urrezko domina bana eman dizkie Juan Martínez de Irujo eta Abel Barriola pilotari profesional ohiei eta beste zilarrezko 24 domina eta ohorezko 6 aipamen beste hainbat pertsona eta erakunderi, zuzendaritza-lanetan eta lan teknikoetan egin duten guztiarengatik.

Sariak Nafarroako Jauregiko Tronu Aretoan banatu dituzte gaur, Nafarroako Egunaren ekitaldien programaren esparruan. Bertan, parte hartu dute, baita ere, Nafarroako Parlamentuko lehendakariak, Ainhoa Aznárezek; Kultura, Kirola eta Gazteriako kontseilariak, Ana Herrerak; INDJko zuzendari kudeatzaileak, Rubén Goñik, eta Kiroleko zuzendariordeak, Primitivo Sánchezek.

Barkos Lehendakariak, lehenik eta behin, bi pilotari ohiak aipatu ditu, eta Nafarroan kirolaren bi erreferenteak direla esan du, ez soilik haien palmaresarengatik, pilotalekuan barruan nahiz kanpoan duten izaerarengatik baizik. "Zuen etengabeko apaltasuna, nortasuna eta hurbiltasuna ez da batere aldatu arrakasta-maila handiak lortu dituzuenean. Eta horrek guztiak denok dakigun mirespena sortu du", azpimarratu du.

Martínez de Irujori dagokionez, titulu nagusiak erreparatu ondoren (5 aldiz buruz buruko txapeldun, 5 aldiz binakako txapeldun eta 3 aldiz lau eta erdiko txapeldun), berretsi du haren arrakasta eta jokatzeko estilo propioari esker, "lehena eta geroa" markatu dituela pilotaren munduan. Bestalde, Abel Barriolaren inguruan adierazi du hiru pilota-txapelketa irabazi dituen pilotari gutxienetarikoa dela, baina batez ere ibilbidean zehar izan dituen balioak nabarmendu ditu: "profesionaltasun eta egoten jakite izugarria, galdutakoan nahiz irabazitakoan".

Ekitaldian, bi saridunek eskerrak eman dizkie Nafarroako Gobernuari eta Nafarroako Kirolaren Institutuari dominak emateagatik.

Alde batetik, Abel Barriolak ziurtatu du pilota nafar guztiak batzen dituen kirola dela, eta kirol-sari horiek jarri izana goaipatu du, "politikariek kirolarekiko eta, ondorioz, gizarte osoarekiko, duten hurbiltasuna eta berotasuna erakusten baitute". Ildo horretan, deia egin du "haurrak Nafarroako kirolariengan arreta gehiago jartzea lortzearren" eta ez soilik ekipo nagusien futbol-partidetan eta jokalarizarren itxura fisikoan.

Bestetik, Juan Martínez de Irujok esan du sari-banaketa "une oso berezia" dela. "Sari hau Nafarroako edozein kirolarik lortu nahiko lukeen handiena da", adierazi du. Urrezko domina horiekin "euskal pilota guztiak irabazten du eta ez soilik eskuak". Aldi berean, instituzioei eskatu die kirol hau babesten jarraitzeko "merezi duen lehen lerroan berriro egotearren".

Zilarrezko dominak eta ohorezko aipamenak

Barkos Lehendakariak, halaber, banatutako zilarrezko 24 domina eta ohorezko 6 aipamen aipatu ditu zuzendaritza-lanetan eta lan teknikoetan egindako lanarengatik. Lan horrek erantzukizun handia duela esan du, eta "funtsezkotzat" jo du kirol-jarduerak garatzeko. "Sari hauen bitartez, egunetik egunera, entrenamenduz entrenamendu, egiten duzuen lanari balioa eman nahi diogu. Zuen konpromisoa eta inplikazioa funtsezko zutabeak dira kirolarientzat, erakundeentzat, eta, hortaz, kirolarentzat oro har", jarraitu du.

Azkenik, Uxue Barkosek adierazi du Nafarroako Gobernuak konpromisoa duela kirolaren alde lan egiten jarraitzeko, eta, eremu horretan, beste jarduera-ildo batzuen artean, Kirolaren Balioen Plana eta Kirolaren eta Emakumearen Plana nabarmendu ditu.

Galería de fotos



Tronu Aretoaren irudia ekitaldian zehar.



Martínez de Irujo eta Barriola pilotari ohiak, Parlamentuko lehendakariarekin (ezk.), Barkos Lehendakariarekin (erdian) eta Herrera kontseilariarekin (esk.)